



AÑANAKO KUADRILLAKO LEP DEIALDIKO IZANGAIK

ENTRADA / SARRERA | SALIDA / IRTEERA
Nº/Zk. — | Nº/Zk. 240

JAKINARAZPENA

HÉCTOR BORRAJO CALVO jaunak, Añanako Kuadrillako behin-behineko idazkaria naizen aldetik, **JAKINARAZTEN DUT:**

2023ko uztailaren 18an, Añanako Kuadrillako presidentek ebazpen hau eman du, jarraian transkribatuta:

"49/2023 EBAZPENA

Gaia: ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, BEHIN-BEHINEKO PUNTUAZIOEKIN. Añanako Kuadrillako lan-eskaintza publikoaren deialdia.

KONTUAN HARTU DA 2022ko maiatzaren 20ko ALHAOn (58. zk.) Añanako Kuadrillaren Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratu zela, eta haren erabakia Kuadrillako Batzarrak 2022ko maiatzaren 11n egindako ezohiko bilkuran hartu zela.

GERTAKARIA: 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148 zk.) argitaratu ziren Añanako Kuadrillak deitutako plazak betetzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak, eta Kuadrillako Batzarrak 2022ko azaroaren 8an egindako ezohiko bilkuran onartu ziren.

KONTUAN HARTUTA 2023ko martxoaren 29ko ALHAOn (37. zk.) argitaratu zela lehenengo hutsen zuzenketa, ALHAOn 2022ko abenduaren 26an argitaratutako oinarrien edukiari buruzkoa.

GERTAKARIA: 2023ko maiatzaren 12ko ALHAOn (55. zk.), hutsen bigarren zuzenketa argitaratu zen, ALHAOn 2022ko abenduaren 26an argitaratutako oinarrien edukiari buruzkoa.

AINZAT HARTU DA 2023ko maiatzaren 26an argitaratu zela Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) Añanako Kuadrillak deitutako zenbait plaza betetzeko deialdia, lehiaketa-faseari jarraituz.



Izangaiek 20 egun balioduneko epea zuten eskabideak aurkezteko, eta epe hori deialdia BOEn argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasi zen, hau da, epea 2023ko maiatzaren 29an hasi zen zenbatzen, eta 2023ko ekainaren 23an amaitu zen, egun hori barne.

Epe horren barruan, hautagai bakoitzak honako agiri hauek aurkeztu behar zituen, aurkezten zitzaien plaza bakoitzeko:

- Inskripzioa eskatzeko idazkia.

- Autobaremazio-formularioa, behar bezala beteta.

- Añanako Kuadrillaren titulartasuneko kontu korrontearen zenbakiari tasa ordaindu izanaren egiaztatzea. Erakunde honen webgunean adierazi da hori, Añanako Kuadrillaren azterketa-eskubideengatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala betez. Ordenantza hori behin betiko argitaratu zen 2023ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (5. zk.).

AINTZAT HARTU DA garaiz eta behar bezala aurkeztutako inskripzio-eskabide guztiek deialdiaren baldintza guztiak betetzen zituztela, bi eskabidek izan ezik, biak 2023ko ekainaren 22koak (293. eta 294. sarrera-erregistroak), administrari eta administrari laguntzaile lanpostuetarako, hurrenez hurren, RUBÉN SAEZ ORTEGA jaunak egindakoak. Izan ere, RUBÉN SAEZ ORTEGA jaunak ez zuen tasa ordaindu bi inskripzioetako batean ere, eta, beraz, ez zuen ordaindu izanaren frogagiririk aurkeztu, eta alegatu zuen tasa ordaintzetik salbuetsita zegoela, % 33tik gorako desgaitasuna aitortuta zuelako.

AURREKARIA: Presidenteordetzak, 2023ko ekainaren 26an emandako 46/2023 Ebazpenaren bidez, RUBÉN jaunari errekerimendua egin zitzaion, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, azterketa-eskubideei zegozkion tasak ordain zitzan, eta berariaz ohartarazi zitzaion zuzenketa horiek garaiz eta behar bezala egiten ez bazituen, inskripzio-eskaera bietan atzera egin zuela ulertuko zela.

Emandako gehieneko epea igaro ondoren, Rubén jaunak zuzendu egin du, 2023ko uztailaren 5ean, administrari lanpostura aurkezteko tasaren ordainketa, baina ez du zuzendu administrari laguntzaile lanposturako azterketa-eskubideen tasaren ordainketa, eta, beraz, Rubén izangaia Añanako Kuadrillako administrari laguntzaile lanposturako EPEko deialditik kanpo geratu da.



IKER PÉREZ DE VIÑASPRE SÁEZ DE VICUÑA jaunak ez zuen aurkeztu, garaiz eta behar bezala, ez autobaremazio-formularioa (ez zekien zein lanpostutan aurkezten zen), ez eta azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu ere, salbuespenik alegatu gabe. Beraz, inskripzioa baztertu egin da, beste izapiderik gabe.

Horregatik guztiagatik, eta Arabako Lurralde Historikoko Añanako Kuadrillako Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren 12. artikuluko i) idatz-zatia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluko g) idatz-zatiaren arabera, honen bidez **EBATZI DUT**:

LEHENENGOA.- BEHIN-BEHINEKO PUNTUAZIOA LORTU DUTEN ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA onartzea:

ONARTUAK				
PLAZA	IZENA	ABIZENAK	NAN	PUNTUAZIOA GUZTIRA
Gerente-Letradua	MIGUEL ÁNGEL	GARCÍA OVEJERO	3***4*93*	80
Gerente-Letradua	MARÍA ITZIAR	GONZALO DE ZUAZO	*6*1*10*	100
Gerente-Letradua	ALEXANDER	MARAÑÓN MUÑOZ	7**94**3*	75,0192
Gerente-Letradua	SEVERINO	CAPA RUIZ	*3*00*5*	75
Administratiboa	MARÍA CRISTINA	LÓPEZ CORREA	47****4H	80
Administratiboa	MERCEDES	MORENO ASCANIO	*6**54*0*	100
Administratiboa	MARÍA MAR	DÍAZ SANTOS	1**80***F	100
Administratiboa	ANA TERESA	MONGE DIOSDADO	**6***64C	100
Administratiboa	MARÍA ESTHER	SÁNCHEZ VERDUGO	16**6***Z	100
Administraria	RUBÉN	SAEZ ORTEGA	***81**6C	80
Administrari Laguntzaile	GEMMA	SOPELANA GARCÍA	1****860*	100



Arduradun Ekonomiko	MARÍA MAR	BELATEGUI IZAR DE LA FUENTE	16****89*	100
Arduradun Ekonomiko	YOLANDA	GALAZ VIDAL	44****0L	80
Zaborretako langilea, E taldea	ENRIC	LLORENS GIMÉNEZ	43****6M	100
Zaborretako langilea, E taldea	CARLOS FÉLIX	SAINZ VELASCO	****457M	100
Artxiboko erdi-mailako teknikaria	RAQUEL MARÍA	ABASCAL HERMOSILLA	1859****	100
Ingurumen-teknikaria	MARINA	GARMENDIA ELIZBURU	728****C	20
Ingurumeneko-teknikaria	CÉSAR	ORTEGA AMESTOY	****603Y	100
Animazio soziokulturaleko teknikaria	MIREN ITZIAR	GARAYO MUGARZA	16****0H	100
Animazio soziokulturaleko teknikaria	ANA	LÓPEZ DE LARRÍNZAR ANTÍA	1627****	100
Animazio soziokulturaleko teknikaria	SUSANA	SORDOVILLA SORDOVILLA	162****K	80
Animazio soziokulturaleko teknikaria	LORENA	LLANA LABAKA	4****99C	100
Animazio soziokulturaleko teknikaria	MIGUEL ÁNGEL	LÓPEZ DE LA PINTA	1859****	72
Zaborretako langilea, C2 taldea	ÓSCAR	DÍEZ MAESTRO	****504L	100
Zaborretako langilea, C2 taldea	JAKUP	LISICA	X****02B	100
Zaborretako langilea, C2 taldea	SERGIO	QUINTANA PASCUAL	4468****	100



Zaborretako langilea, C2 taldea	NICOLÁS	MONEO AZURMENDI	1*****13K	100
Goi-mailako arkitektoa	EVA MARÍA	ODRIOZOLA BENITO	305*****V	100
Goi-mailako arkitektoa	NAIA	IRASTORZA LÓPEZ	3067*****	80
Goi-mailako arkitektoa	DAVID	ÁLVAREZ RODRÍGUEZ	4*****82Z	100
Goi-mailako arkitektoa	JOSÉ MARÍA	VILLANUEVA SAIZ	*****377T	97,80472
Goi-mailako arkitektoa	SARA	MARTÍNEZ AGUILLO	30*****4D	64
Artxiboko goi-mailako teknikaria	JULIA	ESPINA DÍEZ	1627*****	100
Euskara teknikaria	MARÍA ISABEL	CALDERERO ANGUIANO	*****146P	100
Eskolako zuzendaria	MARÍA JESÚS	CALLEJA ROS	72*****4B	100
Eskolako arotzeriako lanbideetako monitorea	ENRIQUE	PUELLES PÉREZ	162*****B	86,3172
Igeltserotza-eskolako lanbide-monitorea	ISIDRO FERNANDO	MARTÍNEZ ARANGUIBEL	2*****94C	100
Eskolako baso-lanbideetako monitorea	KERMAN	VILLATE BEITIA	*****486K	23,73078
Eskolako baso-lanbideetako monitorea	MIKEL	GALLEGO MUÑOZ	1662*****	93,4454
Eskolako ikasketaburua	JOSÉ JAVIER	GÓMEZ ARANA	44*****9K	100

BAZTERTUAK



PLAZA	IZENA	ABIZENAK	NAN
-	IKER*(1)	PÉREZ DE VIÑASPRE SÁEZ DE VICUÑA	*****608Y
Administrari Laguntzaile	RUBÉN*(2)	SÁEZ ORTEGA	***81**6C

**(1) Tasa garaiz eta behar bezala ez ordaintzeagatik eta salbuespenik ez alegatzeagatik (inskripzio-fasea).*

**(2) Azterketa-eskubideen tasa garaiz eta behar bezala ez ordaintzeagatik (eskabidea zuzentzeko eta hobetzeko errekerimendu-fasea).*

BIGARRENA.- Ebazpen honen edukia Añanako Kuadrillaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Añanako Kuadrillaren webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea onartutako eta baztertutako pertsona guztiei, jakinarazpenetarako emandako mezu elektronikoetan.

LAUGARRENA.- Ebazpen hori paperean jakinaraztea eskabidearen deialdian berriaz eskatu duten izangaiei.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen edukiaren berri ematea hurrengo Kuadrillako Batzarrean."

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez daiteke, BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, hala ezarrita baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 8. eta 46. artikuluetan (lege hori 2003ko abenduaren 23ko Legeak aldatu zuen) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluan.

Hala ere, aukeran, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazitako ebazpenaren aurka BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA jarri ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo



egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan aurreikusitakoaren arabera, eta egoki iritzitako beste edozein errekurso jartzeari kalterik egin gabe.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dut.

Ribabellosa, 2023ko uztailaren 21a.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,



Sin.: Héctor Borrajo Calvo